

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****IRURAIZ-GAUNAKO UDALA****Behin betiko onespena ematea 2021eko ekitaldian kreditu gehigarri bidez aurrekontua aldatzeko espedienteari (3.2021 aldaketa)**

Bat etorri Toki Erakundeen Aurrekontuen Foru Arauak 34.3. eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 3/2021 kreditu aldaketaren espedienteari hasierako onespena emateko erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, honela:

920.120.00	2.759,95 euro	Kreditu gehigarria
920.121.00	2.000,29 euro	Kreditu gehigarria
920.121.01	3.397,10 euro	Kreditu gehigarria
920.160.001	2.757,00 euro	Kreditu gehigarria

Kreditu gehigarria gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago. Zenbatekoa: 10.914.34 euro.

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren 38/2013 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, aurrekontu aldaketaren espediente osoa helarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Toki Erakundeen Sailari.

Azilu, 2021eko azaroaren 8a

*Alkatea*

*SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO*